

MOTZAK INAUTERIETAKO MOZORRO LEHIAKETAKO ARAUTEGIA • **GEHIGARRIA** TXIKIBARREN
KULTURA ARIMA BELTZAK HIRU KONTZERTU ESKAINIKO DITU ANDALUZIAN

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A • 2004ko otsailaren 13a/XI. urteq/476. zkia

BARREn

ASTEKARIA



PEDRO CERVIÑO ISLAND PEAK (6.189m.) MENDIAREN GAILURREAN


Gizona bere ametsen neurrikoa da

zatoz
ikastolara!

Matrikulaketa epea:
otsailaren 16tik 27ra



elgoibar ikastola
☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net





Erakutsi eta estali

Batzuk erakutsi nahi dute, eta beste batzuk estali. Baina ezingo dute nahi dutena egin. Moralaren izenean, erakutsi duenari tapatzeko agindu diote, eta estali nahi duenari, berriz, legeak ez dio halakorik egiten utziko. Titia eta buruzapia. Txanpon beraren bi aldeak.

Janet Jacksonen titi ia biluziak hautsak harrotu ditu Estatu Batuetan. Telebista eta zinema pantailetan sekulako sarraskiak ikusten dituzten haurrentzat kaltegarriak omen dira halako ikuskizunak. Hainbat herrialde "gaiztoetan" urte askotan milaka (milioika?) lagun hil dituztenek haurtzarora ikuskizun "pornografikoetatik" babestu nahi dute. Aitaren edo amaren pistola eskura duten haurren heziketa morala jokoan dago. Hori bai X filma!

asteko notiziari

Neska musulmanei, berriz, burua zapiarekin estaltzea debekatu diete. Asteon onartu du Frantziako Parlamentuak laikotasunaren aldeko legea, eskola publikoetan erlijio ikur nabarmenak debekatzeko dituenak. Hautsak harrotu ditu horrek ere. Buruzapidun neskak kalean ikusi ditugu, burua estaltzea euren aukera dela aldarrikatzen. Erlijio ikurrekin batera politika ikurak ere debekatu nahi zituen Frantziako gobernuak. Momentuz albo batera utzi du asmo hori, momentuz...

Bazter guztietan debekuak ugaritzen ari dira. Batzuk agindu eta beste batzuk obeditu. Bueltarik ba ote destinu petral honek?

Montse Arregi



Gaztetxea eta haize bilakaturiko hitzak

Uda honetan VII. urtemuga beteko zuen gaztetxeak, laugarren Gaztetxeak, baina eskabadorak eraikina botatzear daude. Jakin bagenekien bota egingo zutela, eta badirudi eguna iristerar dagoela. Orain arte dena jakina, baina badira zenbait galdera airean. Komunikabideen bitartez jakin genuen gazteei zuzendutako etxe baten inguruko lehiaketa bat antolatu zuela udaletxeak. Horren inguruan berri gehixo jakin asmoz, gazte batek udaletxera jo zuen, eta bere harridurarako alkatesarekin zuzenean egoteko aukera izan zuen, hark esan zion lasai egoteko, erabakirik ez zutela hartuko gazteen iritzirik gabe. Gazteek lanean ziharduten ordea, herriko arkitekto gazte batekin etorkizuneko Gaztetxea diseinatzen, kokaturik joan behar zuen terrenoa onarritzat hartuta, baina hau, orain, erabilera publikodun lur sail bilakatu da bertan, etxeak egiteko. Bestalde, eraikina uda partean bota behar bazuten, orain otsaila bukaeran edo martxoa hasieran botatzea du helburu konstruktoreak, Udalak gutxienez bi hilabete lehenago abisatuko zutela esan bazigun ere, ez da horrela izan eta pasa den astean abisatu ziguten. Hori esatzeaz gain, dagoeneko lokal bat ere erosia zutela eta atzera bota ezin gintezkela. Nola liteke ordea 2 asteren epean, Maribik esandakotik, lokal bat erosia izatea.

Lokala N-634 aren ondoan dago, Guassaren bestaldean hain zuen ere, honek suposatzen duenarekin. Alde bateik errepidea zeharkatu beharra, nahiz eta semaforoak egon, badakigu jendea nola ibiltzen den, diskotekako bezeroekin sortu daitezkeen tirabirak, eta garrantzitsuenak: herrigunetik at dagoela. Zergatik eraikin publikoak bertan izanda, Gaztetxea kanporatu? Hasiera batean GazteLekua eta Gaztetxea fisikoki urrundurik nahi bazenituzten, orain eraikin berdinean jarri? Etxe berri bat eraikitzeko prest egonda, orain berriro ere fabrika zahar bat? Nork esanen digu ez dutela lur sail horrekin ere espekulatuko hemendik urte batzutura eta bertan etxe "merkeak" eraiki? Berreskura dezagun Madalako parkea, bertan altxatuz eraikin berri bat, lehen zegoenaren berdina, eta parkea benetako berdegune bilakatu, oroitzen al zerate? Ba hori; Gaztetxea orain eta beti herrigunean. AH! GAUR BATZAR BEREZIA DAGO ARRATSALDEKO 19:00ETAN, GAZTE AGER HADI!

Nestor Fuentes

Kexak	5
motz Motz.....	10
gehigarria	13
kiROLak	20



◆ Gazte talde bat etorri zaigu Barren-era, **San Roke auzoan, Guardia Zibilen kuartela zegoen tokian kotxe mordoia egoten direla aparkatuta, eta ezin izaten dutela bertan jolastu:** “Kotxe mordo bat egoten da aparkatuta kuartela zegoen lekuan. Futbolean jokatzeko kantxa bat da, eta han ez lukete aparkatu behar”.



◆ Emakume batek esan digunez, **Ubitarte eta Arrillaga arteko parkea, txakur kakaz beteta egoten da:** “Umeak Ikastolatik ateratzen direnean, Ubitarte aldera joateko ohitura daukagu, baina azkenaldian ez dugu inon jartzeko lekurik aurkitzen, dena txakur kakaz beteta egoten baita. Txakurrek beren beharrak egiteko lekua jarri dute Leku Ederren. Mesedez, txakur jabeek errespetatu ditzatela herriko gunek”. Honekin batera, beste herritar batek P.M. Urruzunokalean ere gauza bera gertatzen dela kontatu digu.

◆ Urasandiko bizilagun batek esan digunez, **joan zen larunbatean Herri Eskolako ate irekien eguna zela-eta, Kalamua kale guztia kotxez beteta zegoen, kalearen bi aldeak, denak espaloi gainean eta kotxe batek ere ez zeukan multarik:** “Ez dago eskubiderik. Asteazkenean Herri Eskolako autobusa pasatzen denean, eta arazorik gabe pasatzen da, espaloi gainean dauden kotxei multarik jartzen diete. Zaborra biltzeko kamioia etortzen denean, trabarik egiten ez duten arren, kontenedore atzean aparkatuta egoten diren kotxei multarik jartzen zaie. Baina joan zen larunbatean, ezin ziren bi kotxe gurutzatu, ez zegoen tokirik, eta kotxe batek ere ez zeukan multarik. Multarik jartzeko kriterio bera erabili behar da beti. Asteazkenean, eta baita larunbatean ere, ate irekien eguna izan edo kanpotarrak aparkatzera etortzen direnean”.



Ametsak egi bihurtuz

Gizona bere ametsen neurrikoa dela dio esaldi batek. Pedro Cerviño (1977) elgoibartarraren ametsa 6.189 metroan zegoen, Himalaiako mendikatean dagoen Island Peak mendiaren gailurrean. Gizakiaren txikitasuna nabarmentzen duen tontor elurtua zapaltzea amesten zuen. Gaur egun munduaren beste puntan, Australian, bizi da Pedro neskalagunarekin batera. Urte eta erdi darama bertan eta duela gutxi familia bisitatzera etorri izana aprobetxatu dugu berarekin egoteko. Iazko urrian lortu zuen gailurra egitea. Ametsak nola gauzatzen diren jakin nahi izan dugu.

Lehen gaztaroan txirrindularitzan ibili ostean, mendiak bete zuen bizikletak lagatako hutsunea Pedro Cerviñoren bizitzan. Hasieratik izan zuen Himalaiako mendiren bat igotzeko irrika, baina pausoz pauso egin du ibilbidea. Pirinioak txiki geratu zitzaizkionean Alpeetara egin zuen jauzia, baina munduko beste muturrean dauden Alpeetara, Zelanda Berrikoetara. Cook (3.754 m.) mendia igotzen saiatu zen iazko otsailean. Himalaiakoekin konparatuz oso altua ez izan arren, mendi oso tekniko eta arriskutsua da. Duela 99 urte eskalatu zuten lehen aldiz eta ordudanik 200 pertsona baino gehiago hil dira saiakeran. “Gailurrera iristeko 200 metro faltan elurraren eta izotzaren egoera kaskarra eta elur-jauzi arriskua handia zenez, nola edo hala jaitsi behar izan genuen. Nire burua ongi ikusi nuen, ordea, eta altuera handiagoko mendi bat igotzeko erronkari aurre egiteko ordua iritsi zela sumatu nuen”.

Gizona bere bakardadean


Atxagaren eleberriko izenburuan moduan, bakar-bakarrik ekin zion abenturari Pedrok. Bakarrik zihoala jakinik, oso ondo prestatu zuen espedizioa eta modu alpinoan egiteko mendi aproposa aukeratu zuen: Island Peak. Horrelako mendietara bakarrik joatea ohikoa ez den arren, hartua zuen erabakia. “Norberak bere buruarengan duen konfidantza eta segurtasun teknikak ezagutzea ezinbestekoak dira, baina garrantzitsuena motibazioa da. Bestela ez zara horrelako abentura batean sartzen”.

Uste baino egun gutxiago

Sydney eta Kathmandu arteko 14 hegazkin orduen ostean, Nepaleko Mendi Federazioaren bitartez lortutako lotura ofizialarekin bildu zen Pedro Nepaleko hiriburuan. Kanpamendu nagusiraino gidatzea eta sherpak kontratatzea zen honen ardura. Printzipioz 21 egunetako espedizioa aurreikusi zuen, baina 13 egunekin aski izan zuen. Altuerara aklimatazioa egiteko asmoz Everest mendiaren kanpamendu nagusira igo zen, “Everesteko kanpaleku nagusia baino goraxeago dagoen Kala Pattar (5.700 m.) izeneko tontortxo bateraino igo nintzen. Island Peak mendiaren magalera aklimatazio lan oso ona eginda iritsi nintzela uste dut”.

Errekoretik 8 minutura

Pareshaya (4.970 m.) izena du Island Peak mendiaren magalean dagoen kanpamendu nagusiak. “Goizaldeko 3:00etan jotzen du jendeak azken eraso eta ni ere halaxe abiatu nintzen. 1000 metro inguruko desnibela gainditu ostean, goizeko 7:00etarako gailurrean eta 9:00etarako kanpamenduan nengoen. Azkar jaitsi nintzela ikusirik ofizialak Mendi Federazioan jasotako denborak konparatu eta nirea bigarren igoerarik bizkorrena izan zela frogatu zuen. Dirudienez, Alemaniar batek zortzi minutu gutxiago behar izan zituen duela 2 urte. Ez nintzen errekorren bila joan, baina hurbiltze egun guztietan soinean eramane nituen 20 kiloak kentzeak mesede egin zidan. Arin sentitu nuen nire burua eta erritmo onean igo nuen”.



Island Peak (6.189 m.) mendia igo duen bigarren pertsonarik bizkorrena da Pedro Cerviño.

6.000 metrotan

Zortzi milakoaren bila

“Sei mila metroko altueran nire gorputzak nola erantzuten zuen eta nire mugak non dauden jakiteko gogoz joan nintzen eta emaitzak ikusirik, zortzi mila metrotik gorako mendi bat igotzea gustatuko litzaidake. Fisikoki eta mentalki egiteko moduan nagoela uste dut, baina dirua da arazorik nagusiena” aitortu digu Pedrok. Jadanik hasi dela finantziazioa bilatzen gaineratu digu, “Australiako ABC telebista katearekin eta Prime Geografic aldizkariarekin negoziaketetan ari gara eta dena ondo ateraz gero, hurrengo urtean Cho Oyu mendia erasotzeko moduan egon nintke, agian. Eta hala ez bada pixka bat gehiago itxaron beharko dut”. Cho Oyu izan liteke Pedroren hurrengo helburua, baina bere benetako ametsa K-2 mendia da.



ISLAND PEAK (6.189 m.)

Island Peak (Imja Tse) Nepalen dago, Everesteko eskualdean. Mendiaren magalera hurbiltzeko trekking-aren lehen zatiak Khumbu bailara zeharkatzen du. Sherpa herriaren hiriburutik, Namche Bazarretik, igarotzen da bidea eta baita Thiangboche monasterio budistatik ere. Mendia bera Chukung bailaran dago. 1952an Eric Shipton mendizaleak jarri zion izena, Thiangbochetik begiratuta izotzeko itsasoaren erdian dagoen irla dirudielako. Tontorretik hegoalderantz begiratuta Ama Dablam ikus daiteke, askorentzat munduko mendirik ederrena. Iparralderantz Nuptse (7.189 m.) eta Lhotse (8.501 m.) erraldoiak eta ekialderantz begiratuta Makalu (8.475 m.) ikus daiteke.

Igoera nahiko zaila gisa kontsideratuta dago mendizaleen artean. Zailtasunik handiena 45 gradu eta 130 metroko desnibela duen azken aldapan dago. Sokak erabiltzera ohituta egon behar du alpinistak. Pedrok azaldu digunez azken 50 metroetan bakarrik sartu behar izan zuen soka: “Sokarekin ekipatuta aurkitu nuen azken zatia, baina ez nintzen sokaren egoeraz fio eta azken 50 metroetan bakarrik erabili nuen nik eramandako soka”.

AUSTRALIA

Duela urte eta erdi joan zen Pedro Cerviño elgoibartarra Australiara. Neskalgunarekin batera Sidneytik 80 kilometrorra dagoen Wellmun herrian bizi da. Gasteizen antza duen hiri txikia omen da. Neskalguna Euskal Herrian jaiotakoa da, baina bi urterekin Australiara joan zen eta 12 urte bete arte bertan egon zen. Australiar pasaportearekin ere badu. Aurrez bi urte eta 3 hilabete pasa zituzten Ingalaterran, baina aspertu zirenean Australiara joatea erabaki zuten. Gustura bizi dira, baina han eta hemen ibili ostean etxera itzuli eta sustraiak errotzeko gogoa duela aipatu digu Pedrok. Munduaren beste puntan bizi direnez (24 ordu hegazkinez) etxeokak eta lagunak faltan botatzen dituzte eta ezin dituzte nahi adina bisitatu. Hango bizimodua oso ezberdina da hemen goarekin konparatuz. Euskal Herriaren txikitasunak eta elkarrenganako gertutasunak hango distantzia itzelekin kontrastea egiten dute, “Etxeak izugarriak dira; garaje, lorategi eta nahi duzunarekin, baina bata bestearengandik urrun daude eta autoa beharrezkoa da edozein tokitara joateko; tabernara, zentro komertzialera, e.a. Ez dago hemen dagoen kaleko giroa eta bizitasunik. Kalean ez da inol ibiltzen”.

Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketa ekainaren bukaeran egingo da

Etxeak 2005erako bukatuko dituztela adierazi dute Etxebizitza

Javier Madrazok zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamentutik jakinarazi dutenez, 2005. urterako amaituko dituzte Ubitarte Buruko Babes Ofizialeko Etxebizitzak. Hala ere, zozketa datorren ekainaren bigarren hamabostaldian egingo dute.

99 Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikiko dira guztira, eta bakoitzak bi garaje izango dituela aurrekusten da.



99 Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikiko dira paraje honetan.

10 milioi euroko aurrekontua

Etxebizitza Departamentuak 10 milioi eurotik gora inbertituko ditu Ubitarte

Buruko proiektu honetan. 2002. urtean 1.064.445,45 euro ordaindu zizkion Eusko Jaurlaritzak Elgoibarko Udalarari Ubitarte

Buruko lur sailaren truke. Orain, erosketa horri urbanizazio gastuak gehitu behar zaizkio, gutxi gora behera 8 milioi euro.

Ubitarte Buruko Etxebizitzen proiektua Telletxea eta Fernandez Militino arkitektoen artean gauzatuko da, beraien proiektua batek irabazi baitzuen, Visesa enpresak eginiko lehiaketa. Etxebizitza berri hauek bereziak izango dira, bai aspektu arkitektonikoetan eta baita ingurugiroari dagokionean ere. Ubitarte Buruko etxebizitza hauek eguzki plakak izango dituzte, ura berotzeko energia sortu ahal izateko.

KZgunean parte hartzeko arau berria ezarri dute

Euskal Herriko KZgune guztietan arau berri bat jarri dute martxan, eta Elgoibarkoak ere ildo bera jarraituko du. Orain arte KZgunean sartzeko gutxieneko adina 18 urtekoa zen, baina aurrerantzean adin hori 16 urtera jaitsiko da. Honela, jende gehiagok izango du KZgunea erabiltzeko aukera. Hala ere, 16 eta 17 urteko gazteek, gurasoen baimen orria erakutsi beharko dute zentroan izena eman ahal izateko.

Bide batez gogorarazi nahi dute otsaileko ikastaroetan parte hartzeko oraindik badagoela lekua.

KZgunea arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara irekitzen dute. Interesatuak 943 74 88 28 telefonoan eskuratu ahal izango dute informazio gehiago.

Gurutze Gorriak 775 euro banatuko ditu mozorro lehiaketan

Urtero bezala, Gurutze Gorriak mozorro lehiaketa antolatu du inauterietarako. Otsailaren 21ean, larunbatean izango da, gauerdiko 00:00ak aldera. Partaideek banaka edo taldeka aurkezteko aukera izango dute, eta sariak desberdinak izango dira. Taldekako irabazleak 200 euro jasoko ditu, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro. Banakako kategorian, 150 euro jasoko ditu irabazleak, 100 euro bigarrenak eta 75 euro hirugarren sailkatuak.

Lehiaketan izena emateko epea otsailaren 20an bukatuko da. Interesatuak Kultura Departamentuan goizez, eta Gurutze Gorrian bertan eman dezakete izena. Partaideek euren ekitaldirako abesti jakin bat jartzea nahi badute, abesti hori eman beharko diete antolatzaileei CD formatuan. Antolatzaileek ezarriko dute parte hartzeko ordena, eta hiru aldiz deitu



ostean, eszenatokian agertzen ez badira, lehiaketan parte hartzeko aukera galduko dute. Esan behar da bestalde, partaideek lehiaketako oinarri guztiak onartu beharko dituztela, eta antolatzaileek partaideak onartu edo ez onartzeko eskubidea izango dutela.

Etxegiña Taldekoek kantuz jantzi zituzten herriko kaleak joan zen otsailaren 7an



German Uriguen Etxegiñak sortu zuen taldea 1925. urtean, eta ordutik hutsik egin gabe, urtero ateratzen dira Santa Eskean. Tradizioari jarraituz, otsailaren 7an atera dira aurtengoan. Goizeko 9:00etan bolatokian bildu, eta bi taldetan banatu ziren. Kepa Urain izan zen talde bateko koplaria, eta Jesus Urizar bestekoa. Talde batek San Roke, Konporta, Sigmako etxeak eta Santa Klara auzoa pasatu zituen. Besteak, berriz, Basarte auzoa, Ermuaranbide Kalea, Pedro Muguruza Etorbidea eta San Pedroko etxeak.

Goizeko 11:00ak aldera, bi taldeak Urasandiko La Union Elkartearen bildu ziren, Gure Bide, Egotoki eta Mutxikinen elkarteek

prestatutako hamarretakoa jateko. Indarrak berri ostean, San Lazaro Egoitzara joan ziren bi taldeak elkartuta. Hemendik aurrera, Kepa Urain izan zen taldea zuzendu zuena.

Bertako bizilagunei koplak batzuk abestu ostean, herriko kaleak zeharkatu zituzten: San Frantzisko kalea, Pedro Migel Urruzuno, San Bartolome, Antonio Arrillaga, Santa Ana, eta Errosario kalea. Eguerdiko 14:00ak aldera, Errosario Kaleko Ama Birginaren aurrean Salbea abestuz bukatu zuten kalejira. Jardunaldiari amaiera emateko, Baltasar Elkartearen bazkaldu zuten. 50 lagun inguru bildu ziren guztira, eta giro bikaina izan zutela kontatu digute.

Maria Rodriguez eta Dulce Mateos izan dira Merkatu Plazako zozketako irabazleak

Merkatu Plazako dendariak Gabi jatetxean bi bikoterentzako afariak zozketatu dituzte hilabete honetan, eta Maria Rodriguez eta Dulce Mateos izan dira irabazleak. Datorren hilabetean, 60 euroko lau txeketa zozketatuko dituzte, eta irabazleek Merkatu Plazan bertan gastatu beharko dute irabazitakoa.



Txankakua Merkatari Elkartearen zozketako irabazleak



Txankakua Merkatari Elkarteak Gabonetan eginiko zozketako irabazleak agertu dira, eta joan zen astelehenean, hilaren 9an eman zitzaion irabazle bakoitzari bere saria. Jose Antonio Osoro (900 euro), Nati Garitano (450 euro), Ainara Rodriguez (300 euro) eta Ane Leiaristi (150 euro) izan dira irabazleak. Dirua erosketan txeketan jaso zuten, eta Txankakua Merkatari Elkartearen komertzioetan gastatu beharko dute.

Jubilatuen Egoitzak Ohiko Batzar Nagusirako deialdia egin du

Erakundearen estatutuen 8. atalean erabakitakoaren arabera, batzardeak Ohiko Batzar Nagusirako deialdia egin du. Datorren martxoaren 5ean egingo da batzarra. Lehenengo deialdia arratsaldeko 17:30ean izango da, eta bigarrenago ordu erdi beranduago. Ondorengo gaiak landuko dira:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2003an eginikoaren balorazioa
3. 2003ko sarrera irteeren balantzea
4. Lehendakari berriaren aukeraketa
5. Eskari eta galderak

Lehendakari berria aukeratzeko hautagaien zerrendara aurkezteko epea irekita dago, eta datorren otsailaren 29an bukatuko da. Interesatuek Jubilatuen Egoitzako idazkaritzan jasoko dituzte beharrekoko xehetasunak.

Bake Epaitegia Azoka Plazako 2. solairuan

Udaletxean obrak egiten ari direnez, joan zen otsailaren 9tik aurrera, Bake Epaitegia Azoka Plazako 2. solairura aldatu dute.



Otsailaren 17an bukatuko dira Gurasoentzako VI. Jardunaldiak

Baikarak (Gipuzkoako ikasleen gurasoen federazioa) eskainita, "Familian agertu daitezkeen arazoak antzematea" hitzaldia izango da datorren otsailaren 17an, eta hauxe izango da Herri Eskolako Gurasoentzako VI. Jardunaldien barnean eskainiko den azkena. Otsailaren 3an eta 10ean "2-12 urte bitarteko haurren garapen afektibo-sexuala" izeneko jardunaldia eskaini zuen Hirusta Kolektiboak, eta jende ugari hurbildu zen bertara. Datorren asteartean, hilaren 17an izango da beraz, azken jardunaldia, eta guraso guztiak gonbidatuta daudela jakinarazi digute Herri Eskolatik

Bihar, otsailak 14, San Balentin Eguna

ZURETZAT ZEIN DA AMODIOA AZALTZEKO MODURIK POLITENA?



MILAGROS ALTZIBAR
54 urte, etxekoandrea

Maitasuna ez da San Balentin egunian bakarrik demostrau bihar, eguneroko kontua da. Detaile txikixak edo haundixak, urte guztian euki bihar dia.

ELVIRA VILA
25 urte, erizaina

San Balentin komertzioen eguna da. Maitasuna egunero demostrau bihar da, maite dozuna lagunduz, eta momentu zailetan berakin egonez. Erregaluak edozein egunetan ein leikez.



JABIER SASIETA
36 urte, elektrikaria

Maitasuna egunero erakutsi bihar da, eta gogua dauanian erregalo bat ein. Oinguan emaztiari erregalua eitxeko liburu baten bila nabil, baina gogua daukatelako.

ROBERTO ALTZERREKA
37 urte, ingeniaria

Mugimendua ibiliz demostratzen da, eta maitasuna berdin. Ez da momentu bateko kontua. Urte osoan demostratzea lortzen baduzu San Balentin egunean ez da ezer errebindikatu behar.



LOLI FREIRE
47 urte, etxekoandrea

Egunerokotasuna zaindu behar da, egun konkretu batekin ez da nahikoa. Detaileak egunerokoak dira, ez dago oparirik egin beharrik, baina egiten badira hobe!

MERTXE SOLAR
59 urte, etxekoandrea

Eguneroko bizitzan hor zaudela demostratzearekin nahikoa da. Bihotzak eta horrelako iruditxoak erabiltzea soberan dago. Momentu zailetan laguntzea da inportanteena.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



IMHn e-calibra proiektuaren lehenengo saiakerak egiten ari dira

Proiektuan garatzen den kable gabeko on-line sistemaren bidez probatu dira makinak IMHko lantegian

e-calibra proiektuaren helburua erreminta makinak eta koordinatuen bidez neurtzeko makinak periodikoki eta urrunetik egiaztatzeko erreminta sortzea da. Prozesua asko merketzen da eta, bestalde, beharrezkoak diren benetako egiaztatzeak erraztu egiten dira.

Lehenengo saiakera hauetan makinaren datu bilketa, internetera konektatutako konputagailu batera datuak kable gabe bidaltzea, eta konputagailu honen on-line bidezko konexioa frogatu dira.

Aurretik definitutako pieza patrioaren programa burutu ondoren,

lortutako datuak kable gabeko komunikazioz bidaltzen dira internetera, hemen on-line aplikazioaren bidez, jasotako informazioa aztertuko da eta dagokion zuzenketa eta ondorioak itzuliko ditu.

Prozesua bideo-konferentzia eta elkar banatutako arbel digital batekin osotuko da. Bertan, xehetasunak adieraziko dira eta lana burutzean sortutako zalantzak gainditzeko balioko du.

IMHrekin batera, Trimek, Unimetric, Nextel, Carsa eta Robotiker enpresak dira proiektuko partehartzaileak.



Ate irekien eguna izango da bihar, otsailak 14, Pilar ikastetxean



Goizeko 10:00etan irekiko dituzte ikastetxeko ateak. Gurasoei ongi etorria emango zaie, eta haurrak eskolaurreko geletan bilduko dira, tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izango dutelarik. 10:30ean Hilario Garrudo psikologoak familiari buruzko hitzaldia eskainiko du. 11:30etik 11:45era ikastetxea bisitatzeko aukera izango da, eta ondoren luntxa eskainiko dute. 12:15etik 13:00ak arte, familiaren gaia landuz mahai ingurua izango da.

Ate irekien eguna ospatu zuten Herri Eskolan

Joan zen larunbatean, otsailaren 7an ospatu zuten Elgoibarko Herri Eskolan kurso honetako ate irekien eguna. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, jende ugari bildu zen Herri Eskolan. Goizeko 11:30etik aurrera eskola irekita egon zen, gurasoek eraikuntza bisitatzeko. Eskolako patioan gaztelu puzgarriak jarri zituzten, Atxutxiamaiak Aisialdi Taldekoekin tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten haurrek, eta Guraso Elkartekoek taberna txiki bat jarri zuten jolastokian.

Bazkalorduan, jangela txiki gelditu zela kontatu digute. 100 lagun inguru bildu



baitziren bertan. Arratsaldean ere, jende ugari elkartu zen Txan Magoaren ikuskizunean eta txokolatadan. Egun oso polita pasatu zutela kontatu digute.

GAZ-T Aisialdi Taldearekin eskiatzera

GAZ-T Aisialdi Taldeak DBH 1,2,3 eta 4. mailakoentzat eski irteera antolatu du. Datorren otsailaren 28 eta 29an Astunera joango dira.

Materiala alokatu behar dutenentzat 100 euroko kostua izango du txangoak, eta gainontzekoentzat 80 euro (eski eta bidai aseguruak barne). Materiala alokatzean, eskiak edo snowa alokatzeko aukera izango da, eta behar dutenentzat, ikastarotxo bat egiteko aukera izango da. Izena emateko epea otsailaren 9tik 18ra izango da. Plazak mugatuak dira, eta matrikulazio ordena errespetatuko da. Dirua Kutxako 2101 0036 65 0124148420 kontu korrante zerbakian sartu behar da, eta ordainagiria, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartera eraman beharko da, izenemate orriarekin batera. Interesatuak, 943-74 16 26 (Nerea Oñederra) telefonoan jasoko dute informazio gehiago.

GEZURRA ARI DU

Egunkaria-ren itxieraren kronika



Lorea Agirre

liburua

Ezaugarriak:

Hitzaura: Joxe Azurmendi

Hitzatzea: Iñaki Uria

Idazlea: Lorea Agirre

200 argazki koloreetan

200 orrialdetik gora

Formatua: 270 X 215 mm

Otsailaren **20** an



+ 9 €

Euskaldunok behar dugun **berria**

BARRE

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 8. gehigarria

Euskal Herrian magia alpatzen denean, akelarreak, sorginak eta aintzina pertsonala mitologikoak etortzen zaizkigu burura. Baina gaur egun badugu David Copperfield bat, Larraulen bizi dena: Txan Magoaz ari gara noski. Nork ez ditu ezagutzen "artxila murtxila" hitz magikoak? Magia euskaraz egiten lehena izan da eta gustura dago bere

Xanti Antero
Txan Magoa

Nor da Xanti Antero?

Salsero bat da, Xanti Anterok mila gauza in ditu. Magia beti Xantikin joan da, baina orain dela 10 urtetatik ogibide bezala hartu du magia, hala ere, nire poltsikoan beti egon da baraja bat.

Euskal Herriko David Copperfield al zara?

Ez zaizkit konparazioak gustatzen. Mago bakoitzak bere momentua dauka. Nik David Copperfield magoaz asko ikasi dut, bera izan baita telebistari pultsua hartu diona, magia moldatu du telebistara, baina bere estilo amerikarra ez zait gustatzen

Noiz jaio zen "txan magoa"?

Behin sagardotegian geunden, ni beti izan naiz koadrilako mago pelma eta magia piskat egiteko esan zidaten. Zorionez edo zoritarrez, sagardotegi osoa bildu zen gure mahaiaren inguruan. Eta bezero batek esan zidan "aizu, etxean badaukat magia liburu bat, nahi badezu

zuretzat" eta horrela hasi nintzen. Nire gurasoen tabernan 10 urte nituenean mago bat sartu zen eta joko bat egin zidan. Orduan sartu zidan magiaren arra. Lehendabiziko urteak latzak izan ziren, gero telebistan sartu nintzen eta Euskal Telebistatik dirurik atera ezin den arren, ezaguna bihurtu naiz.

Magiaz bizi daiteke?

Ez, hemen ez dago zirkuitua magia ikusteko, ohitura gutxi dago horrelako ikuskizunak antolatzeko. Orain dela urte batzuk 2 maletekin ibiltzen nintzen aurrera eta atzera. Orain furgoneta bat eramaten dugu, tramankuluz josita.

Zu izan zara magia euskaraz egin duena lehena, ezta?

Bai, ipuin kontalari batek, iparraldeko agure batek pasatako hitz magikoak eman zizkidan "artxila, murtxila". Oso harro nago hitz magikoetaz, nire aportazioa behintzat egin baitut. Ez dira Txan magoaren hitz magikoak, Euskal Herriko hitz



MOTX-MOTXIAN

Definitu zure burua 3 hitzetan: Inprebisiblea, salseroa eta laguntzeko prest dagoena.

Haur batek eskatu dizun gauzarik arraroena?

Bere aitaxo kartzelatik ateratzea. Pentsa! Erantzun diplomatikoa eman nion hori magia handia zela eta denon artean egin behar genuela trukoa.

Musika oso gogoko duzu, ezta? Nire bizitzaren %50 da musika.

Mago bat? Magia bakoitzak bere momentua dauka eta magoa batek ere bai.

Bizitzaren aurrean zein truko? Ez dago trukorik, jausi eta altxa!

Zer aterako zenuke kapelatik? Justizia mundu guztiarentzat.

Emakume bat konkistatzeko hitz magikoak? Hitz goxoak.

Nori emango zenioke betirako bizitza? Etsairen bati, oso astuna izan behar da ta!

Alabak "magoa izan nahi dut" esango balizu?

Ziurrenik aitaxoren odola izanda, gaur magoa eta bihar bonbero.

Nor desagertaraziko zenuke? Nor baino, zer hobeto: injustizia

Musean jokatzeke zure dohainak erabiltzen dituzu?

Auzoan ez didate usten musean jokatzen!

**" Artxila,
murtxila
Euskal Herriko
hitz magikoak
dira"**

IRAKASLEARI

**MAITE
MOYA**

LEHEN HAZKUNTZAKO IRAKASLEA



- 1 **Irakasle izango ez bazina?**
Aktore izango nintzateke.
- 2 **Iratzargailuak jotzen duenean zer da burutik pasatzen zaizun lehenengo gauza?**
Iratzargailua 10 minutu beranduago jartzia.
- 3 **Zer erakutsi dizute ikasleek?**
Alaitasuna eta pazientzia izaten.
- 4 **Zeintzuk dira irakasle on baten ezaugarriak?**
Lana gogoz eitzia eta saiatzia ere ikasliak gogo horrekin mantentzia.
- 5 **Eta ikasle on baten ezaugarriak?**
Klasian gogotsu egotia eta parte hartzia.
- 6 **Begiak itxi eta 3 desio esango zenizkidake?**
Lana eukitzia, pozik bizitzia eta mundua hobetzia.
- 7 **Amets bat?**
Munduko toki guztixak ezagutzia.
- 8 **Zein festetara eramango zenituzke eskolako beste irakasleak?**
Lesakako San Ferminetara.
- 9 **Munduko diru guztia daukazu eta zure ikasleentzako bidaiari bat antolatu behar duzu.**
5 izarreko hotel batera jonoago nintzateke eta

NOLAKO ENBORRA... HALAKO

**ELISABETH GALLARDO**
ama**GALDERAK**

1. Noiz egin zenuen negar azkenekoz?
2. Zer da zure amaz/alabaz gehien gustatzen zaizuna?
3. Amorratzen zaituen zerbait?
4. Pertsonai ospetsu bat aukeratzeko aukera bazenu?
5. Liburu bat?
6. Zein momentu ez zaizu sekula ahaztuko?
7. Zeri diozu beldurra?
8. Arratsaldeko planik hobereena?
9. Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru?

**BEATRIZ ALVAREZ**
alaba

- 1 Beatrizen jaunartzean
- 2 Gauzez arduratzeko duen kapazitatea
- 3 Telefonoak jotzea bazkaltzen ari garenean
- 4 Martin Luther King
- 5 Single&Single "Jhon Le Carré"-rena
- 6 Nire bi alaben jaiotza
- 7 Alabei zerbait gertatzeari
- 8 Sofan lasai-lasai egotea
- 9 Lasaiago!

- Pasa den ostiralean, lagun batekin borrokatu nintzen 1
Behar dudanean beti hor egoten dela 2
Tonu altu batean hitz egitea jendeak 3
Chenoa 4
Relato de un verano, Patricia Reilly Giff -ena 5
Ospitalean igaro nituen 2 egunak 6
Etxea erretzeari 7
Tenisean jokatzera joatea 8
Teleberriak aurkezten 9

Txiki inkesta

Zer da webcam-a?

10 urte Maitane Cid

Txandal marka bat dela uste dut



11 urte Estefani Perez

Futbolista famatu bat dela uste dut.



11 urte Marta Mayo

Kamara bat da, eta lekutik mugitu gabe beste toki bateko gauzak ikusten dira.



11 urte Ion Ortega

Toki baten ipintzen den kamara bat da, eta hango gauzak ikusten dira.



Zeini eskatuko zenioke autografo bat?

Joshua Segura 10 urte



Realeko Nihat jokariari eskatuko nioke. Oso ona da.

Eneritz Aizpitarte 11 urte




Realeko edozein jokalariri eskatuko nioke.

Kevin Lemus 10 urte



Darko Kovacevic aurrelariari eskatuko nioke, Realean gol asko sartzen dituelako.

Eneko Iriondo 10 urte



Kovaceviceri, Realeko jokalaria onena delako.

Paristik natorren **artista bat naiz**

**Garazi Aiesta eta Ane Astiazaran
L.H. 4. maila - Elgoibar Ikastola**



Bertsokak: EUSKAL INAUTERIAK

Heldu dira jadanik
inauteri jaiak
kalez kale gabiltza
mozorroz jantziak
Ziripot ta Zaldiko
Txatxo ta sorginak
Pipi, Heidi ta Marcoz
ederki jantziak



Ikastolatik irten
Txatxo ta bolantak
joaldunak ere bai
baita zanpantzarrak
kukurutxo txapela
masailak gorriak
horrelakoak dira

gure inauteriak

Inauteriak dira
festa xelebreak
indioz janzen dira
gizon ta andreak
amonak txinatarrez
aitonak umeak
txupete eta guzti



lehiaket a lehiaket a lehiaket a lehiaket a lehia

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Aurreko lehiaketako irabazlea: **Zuriñe Conde**

Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefona:

SARIA

MUSIKA CD BAT

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo
posta elektronikoz bidali:
barren@elgoibarkoizarra.com



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 13 Yudego
- 14 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 15** Etxeberria
(Errosario kalean)
- 16 Zabaleta
- 17 Ibañez
- 18 Bidasolo
- 19 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 20 Fernandez

GAUEZ

- Yudego
- Etxeberria
- Etxeberria
- Zabaleta
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez

FARMAZIAK

- ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
- ZABAETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
- OKINDEGIA**
15 igandea Idarraga

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO

Egunero
Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero
Bilbo 06:00 7:00... 20:00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00 8:10
9:25 9:35
11:10 11:40
11:20 11:50
12:10 12:40
12:20 12:30
13:10 13:20
13:20 13:30
18:20 18:30
19:10 19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10 8:20
9:55 10:05
11:10 11:20
11:40 11:50
12:10 12:20
12:40 12:50
13:10 13:20
18:10 18:20
19:00 19:10

OSASUNA

- Anbulatorioa943 03 26 10
- Planning-a943 74 29 50
- Alkoholiko Anonimoak943 74 03 85
- D.Y.A (anbulantzia)943 46 46 22
- Gurutze Gorria943 74 38 64
- Mendaroko Ospitalea943 03 28 00
- Odol Emaileak943 74 39 36

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak943 74 04 42
- PESA (Eibar)902 10 12 10
- Taxi geltokia943 74 08 98

UDALA

- Euskara Zerbitzua943 74 43 66
- Udal Kirol Patronatua943 74 44 15
- Kultura Zerbitzua943 74 21 58
- Mendaroko Udala943 75 61 00
- Ongizate zerbitzua943 74 10 08
- Udaletxea943 74 10 50
- Udaltzaingoa943 74 13 94

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra943 74 16 26
- Kiroldegia943 74 44 15
- Kontsumo Bulegoa943 74 30 88
- Liburutegia943 74 35 25
- Musika Eskola943 74 21 45
- Mintxeta943 74 43 15
- Parrokia943 74 08 42
- Postetxea943 74 15 47
- Gaztetxea943 74 35 72
- Gazte Informazioa943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

- San Lazaro Egoitza943 74 02 96
- Zaharren Biltokia943 74 05 26
- Eguneko Zentroa943 74 45 65

IKASTETXEA

- Haur Eskola943 74 21 41
- HHI (EPA)943 74 08 80
- Herri Eskola943 74 08 79
- I.M.H.943 74 41 32
- Institutua

- Arreiturre943 74 80 19
- Ezenarro (Meka)943 74 80 19
- Ikastola943 74 44 41
- Pilar Ikastetxea943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN943 74 41 12
- El Diario Vasco943 74 40 73
- El Correo Español943 74 10 82
- Zazpiki Irratia943 74 34 74
- Egunkaria943 30 02 28
- Gara943 31 69 99

Sabin Osoro elgoibartarraren "Etiopia" argazki erakusketa Kultur Etxean

Argazkiak salduz lortutako dirua Miski Taldearentzat izango da

Gobernuz Kanpoko Erakunde den Miski Taldeak Peruko haur behartsuentzako dirua lortzeko kanpainekin aurrera jarraitzen du. Oraingoan Sabin Osoro argazkilari elgoibartarrari eskatu diote laguntza eta honek ez dio entzungor egin laguntza deiari. Etiopiar egindako bidaia batean ateratako argazkiekin osatutako erakusketa egin zuen duela gutxi Osorok Kultur Etxean. Orain, aurreko aldian jarri ez zituen formatu handiko zenbait argazki jarriko ditu ikusgai. Argazkiak salgai egongo dira eta lortutako dirua Miski Taldearentzat izango da, bere proiektuekin aurrera jarrai dezan. Otsailaren 13an inauguratuko da erakusketa eta 29ra arte izango da ikusgai



Etiopiarren erretratu ikusgarriak lortu ditu Sabin Osorok.

Kultur Etxeko erakusketa gelan. Bertan, elgoibartarrek borondate onez emandako liburu eta komikiak ere jarriko dituzte

salgai Miskikoek. Dirua biltzeko ekintza ezberdinak amaitzeaz daude eta ia 6.000 euro bildu dituzte dagoeneko. Iaz baino diru gehiago lortu da eta Miskiren ardurapean dauden haur guztiak eskolaratzea ziurtatuta dago.

Bestalde, kanpaina berri bat jarriko dutela martxan aipatu digu Gemma Agirregomezkortak, "Elgoibar eta inguruetan Miski Taldeko partaide berriak lortzeko kanpaina abiarazi nahi dugu batetik, eta bestetik haurrak apadrinatzeko kanpaina bat. Udaberrian hasiko gara lan hauetan eta Mila Tudanca elgoibartarra izango da arduraduna". Azkenik, Gabonetako otarraren irabazlea Ion Uriarte izan zela aipatu.

"Elgoibarko euskara" ikastaroan izena emateko azken eguna otsailaren 25a izango da



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatuta, Elgoibarko euskararen gaineko ikastaroa hasiko da martxoaren amaieran. Elgoibarko Udalaren babesa izango duen ikastaroan Elgoibarko euskara ereduari berri eman nahi da, arloz arlo. Ez da ikastaro klasiko bat bakarrik izango: eztabaida gune izatea ere bilatzen dute antolatzaileek, informazio truke baterako aukera, ikastaro emailearen eta hartzaileen arteko trukea, alegia.

Dagoeneko 10 bat lagun inguru animatu dira eta gainontzekoak ere animatu nahi

dituzte. Jesus Mari Makazaga filologoa eta EHUko irakaslea izango da irakaslea. Ikastaroaren ordutegiari eta iraupenari dagokionez, ikastaroa noiz eman (aste barruan ala zapatu goizetan) interesa erakusten dutenen artean erabakiko da.

Ikastaroaren iraupena edo ordu kopurua ere ikastaroa egin nahi dutenek erabakiko dute antolatzaileekin batera. Zehaztuta dagoena izena emateko azken eguna da, otsailaren 25a, eguaztena, izango baita. Elgoibarko Izarran eman daiteke izena (943 74 16 26).

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

Familia, bikote eta banakako terapia



- ▶ Harreman arazoak:
 - Familia
 - Bikotea
 - Kideak
- ▶ Jarrera arazoak
- ▶ Porrot eskolarra
- ▶ Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...

Edificio Aurrera Urtzaile kalea, 1 - EIBAR

Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

Uxue Alberdik bigarren urtez jarraian lortu du 2. saria Berrigarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan

Laz gertatu zen moduan, bigarren saria errepikatu du Uxue Alberdi elgoibartarrak Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketan. 19 urteko elgoibartar gazteak gutun osoa idatzi du epaimahaikoen iritziz: “oso ondo girotutakoa eta zaharren arteko maitasuna primeran islatzen duena. Irakurleak errez irudika ditzake gutuneko pertsonaiak. Umore puntua ere badu. Oso gutun maitagarria”. Epaimahaiko kideak, Itxaro Borda eta Karlos Linazasoro idazleak, Nerea Elustondo bertsolaria eta Iñaki Serrano, iazko irabazlea, izan dira.

Argumentua

Eutimio aitonak bere emazte den Martiñari idazten dio gutuna. Gaixo dago eta ez da gauza bere kabuz moldatzeko,

baina beti dauka Eutimio alboan, bere senar, lagun eta maitale fina. Sasoiko zireneko garaiak gogoratzen ditu gutunean, ze ondo pasatzen zuten elkarrekin, eta ilusio berarekin saiatzen dira orain ere egunerokoari aurre egiten.

Lehen saria Modesto Arrietak irabazi du. Epaimahaiaren iritziz, oso ondo idatziriko gutuna osatu du 54 urteko zarauztarrak; orijinala, umoretsua eta erotismo printza batzuekin. 450 euro poltsikoratuko ditu Modestok telebistako albistegietako aurkezle ezagun batetaz zeharo maitemindua dagoen gizon baten amodiozko gutuna idaztearren. Bigarren sariak 240 euroko diru saria zuen. Bergarako Jardun Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketaren sari banaketa



otsailaren 14an, San Balentin Egunean, egingo da. Ekitaldia Bergarako Zabaltegi Aretoan izango da 19:00etan. Bertan, irabazleek euren gutunak jendaurrean irakurriko dituzte. Amaitzeko, Txuma Murugarrenen kantaldia izango da.

Arima Beltza blues&rock taldeak bira txikia egingo du Andaluzian



Arima Beltza musika talde elgoibartarrak AHIRU kontzertutako bira txikia egingo du asteburu honetan Andaluzian. Euskal Herrian barrena euren bi lanak makina bat kontzerturekin ezagutarazi ostean, mugak gainditu eta Andaluzian joko dute datorren otsailaren 13, 14 eta 15ean. Blues tradizio handia duen lurraldea da Andaluzia. Joan zen Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdian talde elgoibartarrak Raimundo Amador eta Ñaco Goñi & Los Bluescavidasekin partekatu zuen eszenatokia, ordura arte jaialdiak izan duen kontzerturik jendetsuenetako batean. Jerez de La frontera, San Fernando de Cádiz eta Cádiz-en eskainiko dituzte beraien emanaldiak. Andaluziatik itzuli eta Tolosako

Inauterietatik pasa ostean, martxoan Galiziarra joango dira.


Azken lorpenak

“Arima Beltza” estreinako diskoarekin SGAE eta AIE erakundeek antolatzen duten “Premios de La Música” sarietan izan ziren Madrilan. Taldearen izen bereko kantarengatik euskarazko abestirik onenaren saria jasotzeko izendatuak izan ziren. Joan zen urtean “Blues sustraia” izeneko bigarren lana argitaratu zuten. Disko berriarekin batera taldean partaide berri bat sartu zen, Jon Gurrutxaga bateria eta abeslaria baketak utzita kantari lanetan zentratu baitzen. Bere lekukoa Elur Arrietak hartu zuen.



1. URTEURRENA

2003ko otsailaren 13an, 36 urte zituela hil zen **JOSU ARRIOLA AZPIAZU**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da igandean, hilak 15, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza elizan Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 Aretxabaleta 2 (Pref.)
 Gazteak 3 Elgoibar 6 (1. erreg.)
 Elgoibar 2 Bergara 0 (Jub.)
 Aretxabaleta 1 Elgoibar 3 (Kad.)
 Lengokoak 9 Elgoibar 0 (Inf.)
 Mondragon 1 Elgoibar 1 (Neskak)

Esku pilota

Udaberri Saria
 Murumendi 22 Lagunak A 15 (Nag.)
 Andazpe 22 Lagunak B 13 (Nag.)
 Bergara 12 Lagunak 22 (Jub.)
 Urrietako 18 Lagunak 22 (Kad.)

Areto Futbola

Lo+7 Kenci 4 (Nazional B)
 Aloaa Mendi 3 Lanbroa 2 (2. maila)
 Magefesa 3 Lauburu 6 (Jub.)
 Lasarte B 3 Lojantzi 3 (Jub.)

Eskubaloia

Askartza 24 Pagoaga Elg. 16 (Kad. Nesk.)
 Tenvomeca Elg. 14 Urdaneta 22 (Kad. Mut.)
 Askartza 20 Cometel Elg. 14 (Jub. Nesk.)
 Pneumax Elg. 20 Urdaneta 29 (Jub. Mut.)
 Hegialde 31 Antt Softlan 25 (Sen. Mut.)
 Escolapios 31 Tecnifuelle Elg. 29 (Sen. Mut.)

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapata, 16
 12:30 Lojantzi Aralar (Jub.)
 16:00 Kenci Laskorain (Nazional B)
 17:30 Lanbroa Aiete (2. maila)

Futbola, Mintxetan

Zapata, 14
 15:30 Elgoibar Otrdiziz (Pref.)
 17:30 Elgoibar Salvatierra (Neskak)
 Domekia, 15
 10:30 Elgoibar Kostkas (Kad.)
 12:30 Elgoibar Antiguoko (Inf.)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 13
 21:15 Lagunak A Hernani (Kad.)
 22:00 Lagunak Mundarro (Jub.)
 22:45 Lagunak A Lazkao (Nag.)
 Zapata, 14
 11:30 Lagunak B Ikaskirola (Kad.)


Eskubaloia, Kiroldegian

Zapata, 14
 19:00 Tecnifuelle Elg. Zarautz (Sen. Mut.)
 Domekia, 15
 11:00 Pagoaga Elg. Urdaibai
 12:30 Cometel Elg. Urdaibai (Jub. Nesk.)

Probintzia guztiko 500 ikasle izan ziren Elgoibarren ospatu zen Gipuzkoako Herri Kirol Txapelketako finalean

Elgoibar Ikastolako bi talde 9. eta 10. postuetan sailkatu

Gipuzkoako Herri Kirol Txapelketaren finalak jokatu ziren pasa den otsailaren 6an, Plaza Handian. Ikasiker erakundeak Gazteakutxaren babesarekin antolatutako txapelketa honetan probintziako hainbat herritatik hurbildutako 500 ikaslelik gora bildu ziren, denak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak. Sei mila gazte inguru aritu dira herri ezberdinetan jokatu diren sailkatze probetan eta onenak Plaza Handian elkartu ziren azken irabazleak erabakitzen. Taldeak hogeitaz lagunez osatuak zeuden; hamar neska eta hamar mutil, eta jokatu beharreko probak, berriz, herri kirolak ohikoak ziren, moldaketa txiki batzuekin. Ohiko txinga-errote, lokotx biltze eta soka-tiraz gain, gizon proba (harriaren ordez errubera baten gainean eseritako laguna eraman behar zen arrastaka) eta tamaina txikiko ingudearekin parte hartu behar izan zuten. Hirugarren mailako txapelketan 10 herritako ordezkariak aritu ziren nor baino nor (Oñati, Lazkao, Donostia, Zumaia, Villabona, Urrbil, Bergara, Anoeta eta Elgoibar Ikastolako



bi talde). Oñatiarrak izan ziren irabazleak eta hauen atzetik Villabonako eta Anoetako taldeak sailkatu ziren. Elgoibartarrak azken bi postuetan sailkatu ziren. Laugarren mailako ikasleen txapelketan, berriz, azpeitiarrak nagusitu ziren Villabona eta Donostiaren aurretik.

Elgoibarko Tenis Taldea Herri Arteko Tenis Txapelketan kanporatua

Elgoibarko lau tenislari gaztek Lehen Herri Arteko Txapelketan hartu dute parte aurretik. Azkoitia, Mutriku eta Oñatiko tenislarien aurka jokatu dute lehen fasean, baina hiru norgehiagokak galdu ostean txapelketatik kanpo geratu dira. Azkoitiarren aurka jokatu zuten lehenbizi eta etxean jokatu arren, hiru partiduetan galdu zituzten elgoibartarrek. Bigarren norgehiagokara mutrikuarren aurka jokatu zuten kanpoan. Hemen ere galtzea tokatu zitzaizkien, nahiz eta banakako partidu bat irabazi. Abel Hernandezek lortu zuen puntu bakarra elgoibartarrentzat. Oñatiarren aurka ere Abelek berak lortu zuen garaipen bakarra. Ander Oñederrak bere banakako partidua galdu zuen eta baita Abelekin berarekin bikote osatuz ere. Elgoibartarren taldean Oñati eta Azkoiti sailkatu ziren finalerdiak jokatzeko. Finala, berriz,



Azkoiti eta Azpeitiko tenislariak jokatu dute. Datorren urtean Herri Arteko Txapelketaren bigarren edizioa antolatzeko asmoa dagoela adierazi digute elgoibartarrek. Urrian izango litzateke, baina Elgoibar ordezkatzeko duten tenislariak aurretik, irail hasieran, jokatu litzatekeen Elgoibarko Tenis Txapelketa batetik ateratzea nahiko lukete.

Inaki Badiola bigarren postuan sailkatu zen Euskadiko Arku Tiraketa Txapelketan

Guztira 110 arkularik hartu zuten parte Ibarran jokatu zen txapelketan

Iñaki Badiola bigarren postuan sailkatu zen Ibarran jokatu zen Euskadiko Arku Tiraketa Txapelketan. Zarta Arkulari Taldeko kideak arku olinpikoen senior kategorian hartu zuen parte. Guztira 110 arkularik hartu zuten parte arku modalitate ezberdinetan eta 35 lagunek, berriz, elgoibartarraren maila berdinean. Zapatuan jokatu zen lehen kanporaketa gainditu ostean, domekako jardunaldian kanporaketak bata bestearen atzetik gaindituz joan zen Iñaki eta finalera iritsi zen. Anjel Vallejo, iazko irabazlea, izan zuen aurrez aurre eta ezin izan zuen aurreko urtean gertatutakoaren



Iñaki Badiola, ezkerretik lehena.

mendekurik hartu, iaz ere arabarrak kanporatu baitzuen finalaurrekotan. Denbora gutxian lortu duen bigarren postua izan da honakoa Badiolarentzat, otsailaren lehen Tolosan jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan ere txapeldunordea izan baitzen. Hondarribiako Jose Luis Goikoetxea izan zen irabazlea.

Bestalde, entrenatzeko lokalarekin dituzten arazoak berri eman digu Iñakik, "hemendik gutxira entrenatzeko lokal gabe geratuko gara, daukaguna bota egingo digutelako aurki. Beraz, oraindik ere zailagoa izango da kirol hau gure herrian zabaltzea".

espainiar estatua salatzerara goaz!!

SALAKETA EGITEKO

Ostirala, 13
18:30 - 20:30
Nafarroa Plazan

Larunbata 14
11:30 - 13:30
Foruen Plazan

eta lantegietan,
ikastetxeetan, tabernetan

parte hartu!



euskal herria AITORTU * ERRESPECTATU

Lana

ESKAERA

- ◆ Emakumea ggarbiketa lanak egiteko prest, etxeak, portalak... Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. ☎ **660 683 044**
- ◆ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 30 56**
- ◆ Gizona arotz moduan edo obrako peoi bezala lan egiteko prest. ☎ **620 074 965 (Luis)**
- ◆ Emakumea ggarbiketa lanak egiteko prest, etxeak, portalak... ☎ **666 76 22 95**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- ◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest, orduka, fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**
- ◆ Emakumea goizez edo arratsaldez umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 27 41**

ESKAINZA

- ◆ Asteburuetarako sukaldaria behar da. ☎ **670 25 04 29**
- ◆ Kamareroa behar da asteburuetarako. Esperientziarekin ☎ **652 77 82 10**
- ◆ Neska pelukeroa behar da. Esperientziaduna eta euskaraz dakiena. ☎ **943 74 18 64**
- ◆ 40 urtetik gorako emakumea behar ba ume bat eskolara eraman eta ekartzeko. ☎ **943 53 16 16**

Bestelakoak

- ◆ CD portagailu bat, CDz beteta galdunuen Nafarroa Plazan. ☎ **610 65 34 52**
- ◆ Elgoibarko bi mutil gaztek lur sailtxo bat alokatu edo hartuko lukete, nahiz eta zikina egon, baina ekonomikoa. ☎ **606 01 42 57**
- ◆ Txakurkume jaiotze berriak oparitzen ditut. ☎ **645 710 111**
- ◆ Perikito hori batek ihes egin zidan astehenean, hilaren 2an, Urasandi kalean goian, ezkerreko pisuetan. ☎ **943 74 30 52**
- ◆ Herri Eskolako tanborrada egunean zilarrezko erlojuak galdunuen eskolako patioan. Aurkitu duenak Udaltzaingoa lagatzea mesedez.
- ◆ Caritasek butanozko berogailua hartuko luke. ☎ **943 74 15 09**

Lokalak

- ◆ Bajo bat saltzen da Olasope 4an. Garaie edo almagenerako egokia. 90m2. ☎ **639 93 32 81**
- ◆ Osasun arloko zentro batek lokala alokatzen du Eibarren. ☎ **943 79 97 46**

Garajeak

- ◆ Garajea alokairuan Arregitorre 6an. ☎ **943 74 12 31**
- ◆ Garajea salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Toletxe taberna azpian. ☎ **943 74 34 49**

Etxebizitzak

- ◆ Pisu salgai Jausoro Plazan. 60m2, 2 logela. Berri berria. ☎ **650 16 77 63**
- ◆ Gasteizen, pisua osatzeko pertsona behar da. Alokairuan. Arana auzoan. Pisu eroso, kokapen ona. 240 euro hileko. ☎ **945 27 42 83 (gauzez)**
- ◆ Santa Ana kalean pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, bi balkoi, berogailua, ganbara. Eguzkitua. ☎ **661 23 77 11**
- ◆ Neska gazteak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **605 74 13 70**
- ◆ Pisu alokatzen da Elgoibarko erdigunean. ☎ **628 122 927**
- ◆ Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **626 91 49 04**
- ◆ Pisu salgai Mendaron. Berria, altzariek, garaje maraduna eta trasteroa. ☎ **686 045 321**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, egongela, komuna, sukalde-jangela eta 2 ganbara. ☎ **665 70 30 24**
- ◆ Pisu salgai erdigunean. 3 logela. Berri-berria. Alzariek. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**
- ◆ Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ **943 74 28 32/686 60 02 39**
- ◆ Elgoibarren pisua osatzeko jendea behar da. ☎ **610 45 85 52 (Nerea)**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

Partikularrak

- ◆ Ingeles Filologian Lizentziatuak klase-partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Goiz eta arratsalde. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31 67**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

- ◆ Citroen C-15 furgoneta salgai. Pintatu berria. 500 euro. Egoera onean. ☎ **943 74 35 26/630 85 03 90**
- ◆ Ezkon soinekoa salgai. 38-40 tailakoa. Marfil kolorea. Osagarri guztiak oparitzen dira. Prezio adosteko. ☎ **646 37 59 14**
- ◆ Fiat Tipo autoa salgai. Egoera onean. 300 euro. ☎ **943 74 84 69**
- ◆ Seat Alahambra 1.9 salgai. TDI, 110 zaldi, 99koa. Airbag bikoitza, aire girotua, 7 jarleku eta ohea montatzeko esturktura. ☎ **615 70 05 11 (17:00etatik aurrera)**
- ◆ Ford orion autoa salgai. Diesela. Merke. ☎ **636 98 61 64**
- ◆ Honda Civic VTEC coupe salgai. 3 urte. Egoera oso onean. ☎ **669 81 73 95 (Gorka)**
- ◆ Opel Astra 1400, SS-AM salgai. Egoera onean. 1.800 euro. ☎ **661 81 87 12**
- ◆ Citroen ZX 1900 diesel salgai. 5 ate, aire egokitua, grisa. 93koa. Bizikletak eramateko baka eta baka normala opari. 2.705 euro. ☎ **639 780 756 (12:30-14:00/20:00-22:30)**
- ◆ Pragua bat erosiko nuke. Pertsona bantentzat edo birentzat. ☎ **943 75 51 47 (gauzez)**
- ◆ 1997ko furgoneta salgai. Kanpingerako egokitua. Toldoa, ohea, mahaia, berogailua, alarma. 102.000 km. Egoera onean. 6.600 euro. ☎ **669 02 63 55**
- ◆ Volkswagen Passat TDI familiarra salgai. Urdina, 105 zaldi, 102.000 km, 4 airbag, aire egokitua, CD, EE, DA, ABS, ASR, 17ko llantak, ordenagailua, baini-lla larrua, esku libreak. ☎ **651 700 752**

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
Tel. 943 741 461

Ordutegia:
Astearte-ostiral: 16:30-20:00

BEKAK

Azterrian ikasteko bekak

Ramon Areces Fundazioak 2004/2005 ikasturtean atzerriko unibertsitate eta ikerketa-zentroetan ikasketak (orokorrean, ekonomiako gaiei buruzkoak eta Europako Batasuneko Zuzendaritzari buruzkoak) burutzeko ikasturte baterako 20 beka prestatu ditu. Baldintzak: goi-mailako unibertsitate-titulua izatea, 2004/2005 ikasturterako atzerriko unibertsitate edo ikerketa-zentro batean onartua izan eta dagokion herrialdeko hizkuntza menperatzea. Bekaren zenbatekoa: izen emateko eta matrikulako gastuak, urteko bidaien gastuak eta hileko 1.600 dolar amerikar. Epea: otsailaren 20tik 27ra

Laborategiko Teknikariak

Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioak Madrilako Erakunde Koordinazioan Laborategiko Teknikariak prestatzeko beka antolatu du. Baldintzak: Lanbide Heziketa II, Ingeniaritza Teknikoa, Zientzietako Diplomatura edo Lizentziatura izan eta beka hau aurretik jasota ez izatea. Bekaren iraupena: hasten den egunetik 2004ko abenduaren 31 arte. Zenbatekoa: 962,00 euro gordin hilean. Epea: otsailak 24

IKASTAROAK

Etxez etxeko laguntzaileak

Irungo Lanbide Heziketako Plaiandi Institutuak langabezian dauden pertsonen zuzendutako hirugarren adineko pertsonak zaintzen etxeetan lan egiteko prestatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa arratsaldez izango da, egunero hiru orduz, astelehenetik ostiralera eta praktikak ere egingo dira. Epea: otsailak 16

LANA

Udaltzainak Azpeitian

Azpeitiko Udalak lau udaltzain-lanpostu txanda libreko oposizio bidez betetzeko deialdia antolatu du. Baldintzak: Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea, euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna eta gizonezkoek gutxienez 1,70 metroko altuera eta emakumeek gutxienez 1,65 metrokoa izatea izatea. Epea: otsailak 17

Ofizial gidaria

Debarrenako Mankomunitateak ofizial gidari bat kontratatzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea eta C motako gidabaimena izatea. Epea: otsailak 18

Hilerriko langilea Eibarren

Eibarko Udalak langile-lanpostu bat (hilerria) betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Eskolatze Ziurtagiaren titulua izatea. Epea: otsailak 19

Udaltzaina Usurbilen

Usurbilgo Udalean udaltzain-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: 18 urte beteta izatea eta 32 urte bete gabe izatea, Eskola Graduatua edo Lehen mailako Lanbide Heziketako titulua, eskatutako gutxienezko altuera, BTP motako gidabaimena eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: otsailak 23



♦ Zorionak **Oihanetxol!** Iadanik bi urte bete dituzu eta neska handia eginda zaude. Zorionak Ikastolako laguntxoan partez.



♦ Zorionak **Jonatan Garateri**, gaur, hilak 13, 9 urte bete dituelako. Gurasoen, anai-arreben eta amamaren partez.



♦ Zorionak **Ianire**ri, atzo, hilak 12, 4 urte bete zituelako. Gurasoen, eta bereziki anaia Ikerren partez.



♦ Zorionak **Saray Rodriguez**, atzo, hilak 12, 10 urte bete zenituelako. Muxu bero bat zure guraso, familiako eta batez ere, ahizpa Eiderren partez.



♦ Zorionak **Maddiri**, hilaren 17an, lehenengo urtebetetzea ospatuko duela. Familiako eta amamaren partez.



♦ Zorionak **Alejandro Berazari**, hilaren 2an, 5 urte bete zituelako. Anai-arreba Pedro eta Adrianaren partez.



♦ Zorionak **Jabier**, datorren igandean 5 urte beteko dituzulako. Familiako partez.



♦ Zorionak **Maialen**, potxola, atzo, hilak 12, 7 urte bete zenituelako. Etxeko partez.



♦ Zorionak **amama Antigua**, bi-loba guztien partez. Eskerrik asko hain ondo zaintzen gaitzulako.



♦ Zorionak **potxola**, hilaren 6an, 5 urte bete zenituelako. Familiako partez.



♦ Zorionak **Paul**, hilaren 12an, 3 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Sarari**, bihar, hilak 14, 4 urte beteko dituelako. Aiton-amona eta gurasoen partez.



♦ Dagoeneko urte bat, eh? Ondo pasa zuen urtebetetzea. Zorionak Ikastolako laguntxoan partez.



♦ Zorionak **bikote** zuen urtebetetzean. Muxu handi bana etxeko guztien partez, eta Aupa Real!



♦ Zorionak **Mireni**, otsailaren 1ean, 4 urte bete zituelako, eta **Nagore**ri, otsailaren 15ean urtebete egingo duela.

13 BARIXAKUA

18:30 ODOL ATERALDIAK

Anbulatorioan

19:00 "ETIOPIA" ARGAZKI

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Egilea: Sabin Osoro

Antolatzailea: Miski Gobernu Kanpoko

Erakundea

Otsailaren 29ra arte



20:30 JOSU LARIZEN

ESTRADIZIOAREN AURKAKO

AKANPADA

Madalan

22:00 KONTZERTU SORPRESA

Madalan

Antolatzailea: Elgoibarko Etxerat

14 ZAPATUA

10:00 ATE IREKIEN EGUNA PILAR

IKASTETXEAN

Antolatzailea: Pilar Ikastetxea

13:00 GIZA KATEA JOSU LARIZEN

ALDE

Irteera: Madalan

Antolatzailea: Elgoibarko Etxerat

15 DOMEKIA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Herriko Antzokian

17 MARTITZENA

18:30 GURASOEN VI.

JARDUNALDIAK

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

Antolatzailea: Herri Eskolako Gurasoen

Elkartea

19 EGUENA

15:30 EGUEN ZURI EGUNEKO

KALEJIRA

King-Kong-en hasi eta Plaza Handiraino

Antolatzailea: Pilar Ikastetxea



20 BARIXAKUA

22:00 "SINUOSE ETA URTAROEN

HOTSAK" IKUSKIZUNA

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Sinuose kolektiboa

ZINE
kluba



"La Flaquiza del Bolchevique"

Zuzendaria: Martin Cuenca.

Antzezleak: Luis Tosar, María Valverde, Mar Regueras, Nathalie Poza.

Lorenzo Silva idazlearen "El Alquimista impaciente" eleberrian oinarritutako produktua. Idazlea bera gidoigintzan zuzendariarekin batera aritu da. Filma edertasunari eta printzipio etiko-ideologikoei buruzko gogoeta fina eta egungoa litzateke labur esaterik eta kalifikatzerik balego. Hilario J. Rodriguezen hitzetan: "Filmeko irudietan ez dago doaneko ezer, begiradaren boterean sinisten duenaren pazientziarekin filmatua zalantzarik gabe".

KIROLAK

Igeriketa ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu Olaizaga Kiroldegian. Ikastaroak haur eta helduei zuzenduta daude eta otsailaren 23an emango zaie hasiera. Ikastaroetan parte hartzeko Olaizaga Kiroldegian eman behar da izena, otsailaren 17tik 20ra bitartean. Jaioberrientzako ikastaroak bihar, larunbata, hilak 14 hasiko dira.

ERREBINDIKAZIOAK

Akanpada Madalan

Elgoibarko Etxerat taldeak antolatuta Argentinan preso dagoen Josu Lariz elgoibartarraren extradizioaren aurkako akanpada izango da gaur, hilak 13, Madalan. Sinadurak jaso, informazioa eman eta sagardo txotx-a egingo dira, besteak beste. Gaueko 22:00etan, berriz, kontzertu sorpresa egongo da Madalan bertan. Azkenik zapatuan, hilaren 14an, giza katea egingo dute 13:00etatik aurrera. Madalan hasiko da eta herriko kaleak zeharkatuko ditu.

KONTZERTUAK

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domeka honetan, otsailaren 15ean, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Clarinera mayor" (J. Mas Quiles), "La Gioconda" (A. Ponchielli), "Soul Bossanova" (Q. Jones), "La Mision" (E. Morricone) eta "Russian Mood" (B. Gay/M. Peeters). Saioa eguerdiko 12:30ean hasiko da.

IKASTETXEAK

IMHko ingeniari-tza

Datorren otsailaren 18an, IMHko Ingeniaritzari buruzko informazio saio irekia izango da Makina Erremintaren Institutuko Areto Nagusian. Saioa arratsaldeko 18:30ean hasiko da eta IMHko Ingeniaritzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko zaizkie bertaratutakoei IMHko instalazioak erakustez gain. Kontutan izan behar da ingeniari-tza honek 3 urtetako iraupena duela, goizez lan egin eta arratsaldez ikasi egiten dela enpresarekin adostutako proiektuaren arabera eta enpresak ikaslea lanaldi erdira kontratatzen duela langile gisa.

zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Los Impostores"

13, barixakua: 22:15

14, zapatua: 22:15

15, domekia: 22:15

16, astelehena: 22:15

"Buscando a Nemo"

14, zapatua: 19:30

15, domekia: 16:30-19:30

"La Flaqueza del Bolchevique"

(Z.K.)

19, eguna: 22:15

"El último Samurai"

20, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Las chicas del calendario"

13, barixakua: 19:30-22:15

14, zapatua: 17:00-19:30-22:30

15, domekia: 17:00-19:30-22:30

16, astelehena: 19:30-22:15

17, martitena: 19:30-22:15

18, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"Good Bye Lenin"

13, barixakua: 19:30-22:15

14, zapatua: 17:00-19:30-22:15

15, domekia: 17:00-19:30-22:15

16, astelehena: 19:30-22:15

17, martitena: 19:30

18, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien

aldaketen erantzukizunik.



"Los Impostores"

Zuzendaria: Ridley Scott.

Antzezleak: Nicolas Cage, Alisom Lohman, Sam Rockwell.

Roy Waller (Nicolas Cage) maniaz beteriko iruzurti dirudun eta esperientziak bete da. Frank Mercer (Sam Rockwell) izaten du lagun bere gaiztakeriatan. Jokabide neurotikoa izaten du maiz Royk, eta pastillak hartzen ditu baretzeko. Pastillak galtzean hasiko dira arazoak eta psikiatragangana joan beharko du. Halabehararen poderioz ezagutzen ez zuen alabarekin harremanetan jarriko du psikiatra ezagutu berriak. Ezagutu berri duen aitaren lanbide bitxiko sekretuak ikasi nahiko ditu alabak.

ZINEA



ste honetako erretratu zaharra irakurle batek laga digu. 1965. urteko azaroan ateratako argazkia da, eta bertan agertzen diren mutikoak, Batxilergoko 4. mailako ikasleak dira. Argazkia Pilarreko ikastetxean bertan aterata dago. Gogoratu dezagun zeintzuk diren argazkian ageri diren gazte hauek.

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Jose Antonio Zubiaurre** (†), **Juan Esteban Barrenetxea**, **Txomin Mujika**, **Rogelio Rodriguez**, **Pablo Gonzalez**, **Jose Luis Soraluze** eta **Fernando Jauregizar**.


Erdiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Enrike Iriondo**, **Jose Mari Barrenetxea**, **Valentin Hidalgo**, **Jon Arrieta**, **Jose Ramon Osoro**, **Jesus Mari Garate** eta **Luis Mari Agirregomezkorta**.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: **Jose Luis Oñate**, **Iñaki Amesti** (†), **Jose Ramon Ezenarro**, **Jose Ignacio Jauregi**, **Jose Luis Arrieta**, **Jose Mari Arriaga** eta **Julian Granados**.




8. URTEURRENA

1996ko otsailaren 11n, 21 urte zituela hil zen
GAIZKA GALDOS ARAKISTAINen oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da
igandean, hilak 15, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza elizan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



7. URTEURRENA

2003ko otsailaren 13an, 68 urte zituela hil zen
JAVIER ARRIOLA LIZARRALDEren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 20:00etan Madalako elizan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



"Ate Irekien Eguna" hilaren 14an
10:00 - 13:00etara Atxutxikoekin jolasak



GUREKIN HASI



Matrikulazio epea
Otsailaren 16tik 27ra
Ordutegia: 9:00-19:00
Tel.: 943 74 13 31




GUREKIN HEZI



nsp42elg@planalfa.es



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Haur, Lehen eta Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxetan
OTSAILAREN 16tik 27ra

MATRIKULAZIOA

2004 - 2005

Elgoibarco HERRI Eskola
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-maila: 012777@hezkuntza.net



baikara
Ginuzkoako Ikasleien
Burrusari Federazioa



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA



Elgoibarco Institutua
San Roke, 1 · Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-maila: bulegoa@elgoibar.hezik.net